

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Kortezubiko Udala****Kortezubiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspenaren aurrerapen-dokumentua jendaurrean jartzeko iragarkia.**

Udalbatzak, 2020ko otsailaren 5ean, aho batez, honako erabaki hau hartu zuen:

*Lehenengoa:* Kortezubiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Berrikusteko Aurrerapen-agiria jendaurrean ikusgai jartzea, bi hilabeteko epean. Epe horren barruan iradokizunak eta hautabideak aurkeztu ahal izango dira. Aurrerapen-agiri horrekin zer ikusia duen dokumentazioa Udaleko bigarren solairuan egongo da eta udaleko web orrian ere bai ([www.kortezubi.eus](http://www.kortezubi.eus)).

*Bigarrena:* Jendaurrean ikusgai egongo dela adierazten duen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Lurralde Historikoan hedapen handienetako bat duen egunkari batean edo batzuetan, Kortezubiko Udaletxeko iragarki-oholean eta udaleko web orrian ([www.kortezubi.eus](http://www.kortezubi.eus)) argitaratzea.

*Hirugarrena:* Ebazpenaren hau Forua, Arratzu, Ereño, Nabarniz eta Gautegiz-Arteagako Udalei jakinarazi eta CD formatuan, dokumentazioaren kopia eta ebazpenaren jakinarazpena bidaltzea.

Kortezubin, 2020ko otsailaren 6an.—Alkatea, Miren Karmele Enbeita Ozamiz